

Nafarkaria


• ostirala • 1998ko irailaren 25a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Lizarra • Hiriaren izena hebraiar izkribuetan ageri da, Sefardi Astean agertu dutenez.

Luzia Goñi • «Niretzako artesia da gauza bat jendearen aurrean egin behar dena».



• A. AZPILIKUETA

Eguzki energia vs. zentral termikoak

Grenpeace erakunde ekologistakoak Nafarroan izan dira eguzki energiaren abantailak agerian uztearren. Energia berriztagarrien alde egiten duten modu berean, zentral termikoen kontra egiten dute. Horregatik egon ziren Castejonen, bi zentral termiko eraiki nahi dituztelako han.

Landazuria taldea ere horren aurka dago.

● Lizarra

Lizarra izena hebraiar izkribuetan ageri da

Horrelaxe erran dute ikerlariek, burutu berri den VI. Sefardi Astean

Iragan astean egin da Lizarran VI. Sefardi Astea, hainbat ikerlariren partehartzearekin. Gaur iluntzean amaiera ekitaldia izanen da, abesti sefardiarrak dituen kontzertu batekin.



Donejakue Bidearen Lagunek antolatu ohi dute urtero Lizarrako Sefardi Astea.

SONIA SALSAME NDI

«LIZARRAKO IZENA DARAMA- ten bederatziz hebraiar izkribu ezagutzen dira. Gehien bat, jauntxoek bere ondasunak eta burututako maileguak zehazteko erabiltzen zituzten erregistro liburuak ziren». Horrelaxe erran zuen Jose Luis Lacavek irakasle eta historialariak amaitu berri den Sefardi Astearen azkeneko hitzaldian. *Lizarra hebraiar tes-tuen barnean* izenburua zuen berbaldian, Lacavek izkribu hauek idatzi zituztenen pertsonen zerrenda eman zuen ere, alegia: Gento Emegriel, Juc Levi, Abraham Levi, Abraham Farach, Juce Emegriel, Menaham Alborge, Abraham Mehe, Abraham Alcaravi eta Abraham Evendaut. Izen hauen jatorria Al-Andalus judutar multzoaren barnean kokatzen da, hain zuzen ere, XII.

mendean Andaluziatik ihes egin zuen multzoaren barnean; izan ere, Andaluzian almohadeak iritsi berriak ziren garai hartan eta musulman judutarrek iparrera ihes egin zuten. *Mehe* abizena, berriz, ez dagokio multzo honi. Hau herriko lehen biztanleen taldeari dagokio Lacaveren abuzuz. Bertzetik, izkribu horietan gaur egun oso ezagunak diren euskal eta kristauar jatorrizko hainbat abizen ere agertzen omen dira, beti ere hizki hebraikoak erabiliaz. Esaterako: Perez, Sanz, Ibañez, Uharte, Zabala, Ezkerro, Tejero, Aznar edo Sanchez. Halaber, sendiaren jatorrizko herria aipatzen

duten abizen konposatuak ere ageri dira. Adibidez: Pascual de Goñi. Izkribu guzti hauek XVI. mende hasierakoak dira, eta bereziki Nafarroan agertu dira. Lacaveren ustez, aberastasun ikaragarria da: «Iraganaren eta historiaren zati batek bizirik dirau». Sefardi Asteak, Donejakue Bidearen Lagunek elkarteak antolatuta, 6. aldía burutu du. *Nafarroako Sefardien joan etorria* izenburupean judutarren egoketaren 500. urteurrena ospatu nahi izan da aurtengoan. Horretarako gai horretan adituak diren hainbat irakasleak hurbildu dira Lizarra-

rano. Lehenengo hitzaldia Bernard Rotherrek eman zuen, Alemaniako Postdam unibertsitateko irakaslea. Bigarren berbaldia Uriel Maciasek, Israelgo enbaxadako kideak, eskaini zuen. Hirugarren hizlaria Henry Kamen izan zen eta azkena arestian aipatutako Jose Luis Lacave. VI. Sefardi Astea gaur ostirala amaituko da. 20:00etan Paco Diezek, La Bazanca taldearen partaideak, kontzertu bat eskeiniko du Gustavo de Maeztu museoan. Bertan sefardi abestien erreportarium zabala eskeiniko du.

→ Kristina Berasain

Iruñerria
●
GR220 bidezidorra irekiko dute bihar

EZKABA MENDI TONTORREAN GR220 Iruñerri Inguruko Ibilbidea irekiko dute bihar Mendi eta Eskalada Kirolen Napar Federakundeok. Inaugurazio ekitaldian, Oberena, Aitonak, Gaztaroa eta Lagunak mendi taldeekin batera sorturiko ibilbide honek dituen hamaika gutunontziak paratuko dira.

Ibilbidearen abiapuntutzat Ezkaba mendiaren tontorra hartua izan da Iruñeko mendizaleen artean mendirik enblematikoa delako. Era honetan, bizitza hiritiarraren ondorioak pairatzen dituen naturgune hau lehenagoratzeko ekimen guziak bultzatuko dituela adierazi nahi du mendi federazioak. Eguerdia aldera, Gabino Aranburuk, mendizale ezagunak eta Aitonakeko kideak, bidezidorraren lehen gutunontzia estalagabetuko du. Hitzaldien ostean, musikaren laguntzaz, Antsoain, Berriozar eta Berriobeitiko udalek prestatu otorduz gozatzeko parada izanen dute haraino hurbildurikoeak. Ekitaldira Nafarroako agintari gorenak gonbidaturik daude, eta, noski, baita mendizaleak ere. Antolatzaileek Ezkabara GR220 bidezidorratik edo ohiko bideetatik igotzeko deialdia egin dute.

Bidezidorra bost zatitan banatua dago: Egillor-Berriogoi, Berriogoi-Uharte, Uharte-Beriain, Beriain-Belaskoain eta Belaskoain-Egillor.

→ Fermin Goñi

metropoli forala

FELIPE RIUS



Iruindar guztiak bezala ibili da goizean zehar itsasoaren ertzean, hau da, ergel baten aurpegia jarriz. Nafarrek beste modu batez begiratzen diote Kantauriari, uretan nolabaiteko traszendentzia bilatuko balute bezala. Erraza da, pentsatu du, goiz eguzkitsu honetan hondartzan edo Paseo Berrian dabilen jendetzaren artean metropoli foraletik datozenak bereiztea. Gipuzkoarrak irrifartsu dabilzan bitartean, nafarrek serio-serio doaz, buruan ideia sakonen bat balute bezala. Batzuk momentu batetik bestera beren buruaz beste egitera doazela dirudi, salto batez ozeanoan murgildu eta betiko desgertuko direla lehorrean sekula aurkituko ez luketen Atlantida misteriotsu baten bila. Jende gehiena bizi da barnealdean, egia da; hala ere, arabar bat, Huescako bat edo Madrildik etorritako atsoa askoz ere modu naturalagoan mugit-

Nafarrek eta itsasoa

tzen dira itsasoaren presentzian, beldurrik gabe, errespeturik gabe ia. Erresuma zaharreko bisitariak, berriz, izaturik baleude bezala ibili ohi dira, uren azpian sekretu ikaragarriak gordeko bailiran.

Pelikulak ikustera etorri da Donostiara pantailako irudiek bere gogo izorratuari nolabaiteko pakea emanen diotelakoan, beste batzuek erakitako ametsek bere amesgaizto guztiak sunsituko dituztelakoan, baina huts egin du. Berarekin antz handia duten pertsonaiak baino ez dira ageri, istorio gehienek berak bizitutako pasadizoak ekarri dizkiote gogora eta atsedena behar zuen memoriak inoiz baino lan handiagoa egin du. Maiz, ispilu baten aurrean balego bezala sentitu da, eta ikusi duena ez zaio batere gustatu. Madarikatu egin du errealtatetik hain hurbil dagoen zinea, eta etorkizunean bakarrik ebasioa

bilatuko duela agindu dio bere buruari, nahiz eta promesa laster ahaztuko zaiola jakin.

Egunerokotasuna eta jende arruntaren bizimodua ardatz dituen beste film horietako bat ikusten ari zela, urduri jarri da. Bere ohituren kontra, proiektzioa bukatu aurretik atera da aretotik, betaurreko graduatuak kendu eta eguzki-koak jarri ditu, eta, nafar bati dagokion seriotasunaz, hondartzarantz abiatu da. Kontxa alde jendez gainezka dago. Erlojuaren parera iritsi denean, bozgorailuetatik ozenki ateratako esaldi bat entzun du: «Galdutako ume bat dago aldagela nagusian; gurasoak bila etor daitezela, mesedez». Abisuak zer bait mugitu du bere barrenean, aspaldiko irudiak gogoratu ditu. Bera ere negarrez egon zen aldagela hartan, duela urte asko, eta bururatu zaio geroztik ez dela handik mugitu, inor ez zaiola sekula bila joan.



urdairen
mintzoa

Patxi Larraburu

Bai baina ez

«Nik ez nuke esango erlazio sexuala izan denik, benetan, niretzat erlazio sexualak izatea beste gauza bat da». Halaxe esan nion, serio demonio, harrirta begiratzen ninduen zaldiari. Baserriaren atzeko ikulluetan geunden, ilunabarrean, eta gure ondoan zeuden oilo eta oilarrek ez entzunarena egiten zuten, disimulatzen. «Baina ardiak esan du...», hasi zitzaidan zaldia. «Egon», esan nion: «nik ez dut esan nahi ardia gezurretan ari denik... niretzat ardia ardi jatorra da, ardi ona, baina erlazio sexuala beste gauza bat da niretzat». Zaldiak maleta beltza miatu eta joaretxo bat atera zuen. Zilarrezkoa. Lauburu txiki bat zizelaturik zuena. Zeta arrosarekin lepoan lotzeko horietako bat. Iruñean 400.000 pezetatan saltzen duten horietako bat. «Ardiak zuk oparitu zeniola dio, egia al da?». Bai, egia zen. Nik oparitu nion. Oraindik ere gogoratzen naiz lepoan jarri nionean, eta ze poza ematen zidan larrean behera zihola entzuten nuen zintzarrotsak. Tin, tin, tin. «Bai, egia da», erantzun nion. Behorrrak orduan «Bost minutuko atsedeen bat hartuko dugu» esan, eta ducados bat piztuz nire zakur eta txekorregana hurbildu nintzen. «Azken inkestaren arabera baserri eta basoko piztien %60 zure alde dago», esan zidan txekorrrak. «Begiratu hau», gehitu zuen *Ikuilu Newsen* azken alea luzatuz. Hasperen bat bota nuen. Bertso zikin batzuk espero nituen baina okerragoa izan zen. Aspaldiko argazki bat zekarren azalean. Ni neu agertzen nintzen. Ni neu eta oilo gazte bat. Bizkarra ematen genion argazkilariari baina, hala eta guztiz ere, oiloaren lepoan zeta arroxan nabarmentzen zen. Argazkiaren hondoan basoa zegoen. Haruntza abiatzen ginela ematen zuen. Ematen zuen diot. «Jesus! Zer esango dugu hon-taz?», galdetu nion zakurrari. Zakurrak, serio demonio, «zizen bila joan zinetela», esan zuen. Emeki-emeki eguzkia bazihoan mendiaren atzetik. Hotza sentitu nuen eta jertsei bat ekarri zidaten. Txoriek moteldu zituzten haien txilioak. Baserriaren inguruak gero eta beltzagoak eta ixillagoak zeuden. Hurbileko soroetatik zilarrezko zintzarrotsak nagusitzen hasiak ziren, zaldiak, berriz ere, epaiketara deitu zidanean.

Sorogain eta Igantzi

Artzai txakur txapelketak eginen dira bihar eta etzi

BIHAR, LARUNBATA, ARTZAI Txakurren I. Lehiaketa eginen dute Erroibarko Sorogainen, eta etzi, igandea, Bortzirietako Igantzi herriak txanda hartuko du bertako XIX. Artzai Zakur Txapelketa burutuz.

Sorogaingo Marka Eguna dela eta antolatu dute Adi Kultur Patronatoak, Galar elkarteak eta Erroibarko udalak estraineko artzai txakur lehiaketa hau. Goizeko 9:00etan Sorogaingo zelaletan bazkatzera sartuko diren ardiak markatzen ditu balleko algoazilak, eta horregatik erraten zaio Marka Eguna. 12:00etan Alejandro Ibarra eta Arkaitz Razkin artzainek erakustaldia eginen dute artzai txakurrekin artalde, behitalde eta antzara taldeak maneiatuz. Bazkaria udalean izanen da eta 16:30etatik aitzina artzai txakurren lehiaketa eginen dute. Mugaz bi aldeko artzainak elkartzeko gunea izatea, Marka Eguna erakargarriagoa egitea eta eskualdeko establezimenduak promozionatzea dute helburu antolatzaileek.

Igandean, Igantzi XIX. Artzai Zakur Txapelketa burutuko dute Meaka-Gain zelaian, 16:00etatik aitzina. Tradizio handiagoko txapelketa honetan bederatzizakurrek hartuko dute parte.

Zakur guziek lan berdina egin beharko dute hasteko, eta lau onenak iragango dira finalera.

→ Fermin Goñi

• Bera

Ttikienak dantzan

Dantzari Ttiki Eguna izanen da igandean, laugarren aldiz

Arront errotua dagoen jaialdia eginen da igandean Beran Gure Txokoa dantza taldeak antolatuta: dantzari ttiki eguna. Oraindik ospakizun berria bada ere, urterik urte jende gehiago biltzen duen ikuskizuna da.



Goizean auzoz auzo ibiliko dira dantzari ttikiak Beran, eta arratsaldean politalekuan bilduko dira.

• EDURNE KOCH

EUSKAL HERRIKO LAU TALDE ETORRIKO dira Berako dantzari ttiki egunera aurten, hegoaldeko herrialde bakoitzetik bana: Bizkaitik Portugaletekoa (lehenbiziko dantzari ttiki egunean Beran izan ziren), Gipuzkoatik Elgoibarkoak, Nafarroatik Zangozakoak, eta Arabatik Amurriokoak. Bertze urteetan hegoaldeko zein iparraldeko dantza taldeak bildu izan dira, baina aurten dantza talde bat guttiago etorrikoenez ez da iparraldeko ordezkariarik izanen.

Lehenbiziko urte hartatik honat aldatu den bakarra parte hartzen duten taldeak dira. Gainerakoan, egitaraua berbera izanen da. Goizean lamotenean ongi etorria eginen zaie dantzari guztiei, eta Berako auzo ezberdinetan barna banatuko dira, talde bakoitzak bere herriko dantza erakusteko. Nagusiki, Sanesteban, Agerra, Ilekua eta Kanttonberrin banatuko dira dantzari ttikiak, beratarrak lagun dituztela. Auzoetan ha-maiketako emanen zaie, eta on-

dotik Altzate karrikara bilduko dira 13:30ak aldera. Han, ohi bezala, dantza talde guztiek elkarrekin dantzatzeko dute *Agintariena*, edo ikurrinaren agurra, eta aurrekua. Ondotik, ttikienak Berako dantzarien etxetara banatuko dira bazkaritara, eta musikari zein arduradunak Gure Txokoa elkarrean bilduko dira bazkaltzera.

Arratsaldean, lamotenean berriz elkartu ondotik, Eztegarra pilotalekuraino joanen dira lau dantza taldeetako kideak. Behin pilotalekuan, dantza talde bakoitzak bina dantza eskainiko ditu, derri-gorrezkoa den *Agintariena* dantza elkarrekin dantzatu ondotik. Elgoibar, Portugalete, Amurrio eta Zangozako taldeetako dantzariak, eta Gure Txokoako talde batek eskainiko dute ikuskizun hori. Jaialdia bukatutakoan berendua eskainiko zaie dantzariak, eta etxerako bidean paratuko dira.

Gure Txokoa elkarteak dantzari ttikien lana plazaratzeko eta ber-

tze dantza talde batzuekin elkar-lana areagotzeko antolatzen du dantzari ttiki eguna. Ohikoa izaten da, halaber, aitzinetik edo ondoren parte hartzen duten herrietako jaialdietara irteerak egitea.

Uztailean Behobiako dantza taldearekin elkarlanean jaialdi ikusgarria antolatu zuen Gure Txokoa elkartearen dantza taldeak dantzari ttikiarekin ere. Orduan, Bera eta Behobiako dantzariekin batera nazioarteko hainbat talde etorri ziren, eta egindako ibilbidea eta egitaraua hagitz antzekoak izan ziren. Orduan Peru, Polonia, Lituania eta Castelloko taldeak etorri ziren. Dantzen aldetik ikusteko gutti duten arren, egiturari dagokionean hagitz parekoak izanen dira uztailearen 25ean egindakoa eta igandean eginen dena. Ttikien besta eguna izanen den hau antolatzeko, Gure Txokoak Udalaren dirulaguntza jaso du.

→ Uxue Zabaleta

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Larresoroko herriaz

Herria astekariak Larresoroko (Lapurdi) herriaz idatzi liburu baten berri dakar azken zenbakian. Liburuak idazteko ideia Dambier senar-emazteei bururatu zitzaizkien, eta euren proiektua aurrera eramateko, beste batzuen artean, Mixel Rekalde irakaslearen laguntza izan dute. **Herria**-ko kideak Rekalderekin mintzatu dira, liburuari buruz: «Lehen lehenik horrelako liburuak ez baitzen eta aintz lekutarik galdea agertzen hasia baitzen falta zela dokumentu jeinutsu bat gure herri xarmant honetaz, horregatik idatzi dugu. Bahin baino gehiagotan erakaste batzuek galdatua ziguten

zerbait Larresoroz. Badira ere gero eta gehiago jende beste nonbaitik honat bizitzera datozenak eta kurios direnak zer zen bada Larresoro lehengo denboraldetan. Galde horiei zerbait arroposten emaitzeko egin dugu liburu hori», aipatzen du Mixel Rekaldek.

Proiektuaren hasieraz mintzo da, halaber, irakaslea: «Dambier jaun andreak dira motorren pizleak: hain xuxen kanpotik etorriak dira honat eta begi xorrotzez behatzen diote Larresorori. Hauek dute ideia bururaino eraman, lehenik idazleak hemen berean aurkituz eta liburuaren agertzeak galdatzen duen geri-

za ekonomikoan hatxemanez. Lana lauean artean partekatu dugu: Jean Marie Dambierrek lantzu du Larresoroko aintzin-historiatik hamaseigarren menderaino. Parte honetan biek elgarrekin lan egin dugu. Bere aldetik lantzu du oraino Larresoro 1600 ingurutik 1815 arte, bai eta hemeretzigarren mendea. Karia honetara lantzu ditu Larresoroko ofizio eta etxe xarrak. Anne Marie Dambier andreak behatu dio duela 100 urteko Larresorori, herriko plazan eraiki zutelarik. Neronek ikertu dut Larresoroko Semenaria, bereziki apezgaitegi hori sortu zuen Joanes Dagerre apezak».

Luzia Goñi

☉ Talogilea

«Niretzat, jende aurrean egin beharreko gauza da eskulana»

Luzia Goñi talogileak eskulangintza feriak alde batera uztea erabaki du, «orain negoziotako hartu dituztelako». Beste pare bat urtez jarraituko zukeen, umeengatik batez ere, baina ferietan izaten den giroak asko tristetzen du orain.

GALDERA BAKARRA EGIN ETA ordubetez mintza daitekeen andre orojakilea da Luzia. Azpiko lerroetan taloa, lixiba eta makiak dira mintzagai, baina beste gauza anitz du kontatzeko.

■ Nola hasi zinen taloa egiten.

Iruñera etorri nintzanean jate-txe bat jarri nuen San Lorenzo kalean, Gauzuri izenekoa. Estudianteak biltzen ziren han, eskaldunak gehienak. Beti eskatzen zidaten nire gazte denborako gauzak kontatzea. Behin esan nien niri tokatu zaidala asko taloa egitea. Eta animatu ninduten plazaz plaza taloarekin joatera.

■ Nola lortu zenituen taloa egiteko lanabesak?

Orduan Ororbiako lantegi batean ari nintzen eta hango mutil bati esplikatu nion nola egin txapa bat, lau hankaduna, gainean sua egiteko. Izan ere, txapa hori izan baino lehen, Lakuntzan sua lurrean egin nuen behin eta izugarritzko leherketa egin zen. Anaia arotzak talaburnia egin zidan, taloarekin ibiltzeko trastea. Zurgin batek egin zidan artola, zurezko ohol bat taloa hantxe moldatzeko. Orea egiteko artesa banuen eta neurrien bila hasi nintzen, Nafarroan banarrak (babarrunak), babak eta denak neurtzeko erabiltzen zirenak. Erregua, erregu erdia, gaitzerua eta zelemina nituen baina almotea falta nuen. Tirapura bizitzera joan ginelarik, etxe batean aurkitu nuen almote txiki-txiki bat, gainean lorea zuena. Hango nagusiak ez zidan saldu nahi izan, andrearri galdetu behar niola. Atzo (igandean) hil zen andre hura bat-batean. Berak ere ez zidan almotea saldu nahi, eta eskuz margotutako jarroi baten truke eman zidan. Eta holaxe lortu nituen denak. Plazan jartzen nituen eta jendeari asko gustatzen zitzaizkion.

■ Zenbat denboraz aritu zara talo egiten?

Hamasei urte eta erdi ibili naiz taloarekin plazaz plaza. Azkenean desilusio handia izan dut taloa negoziotako hartu dutelako. Eta ni lehertuta nenbilen lanean! Nik egi-

soslaia

Luzia Goñi Olias 1928ko abenduaren 13an jaio zen, Aizarotzen, Basaburuko herri tipi batean. Haurra zela, herriko etxeak eta lursailak erosi zituen pertsona batek eta handik kanporatu zituen. Luziaren aitak etxe berria Gartzarunen eraiki zuen eta han bizi izan zen 14 urterekin mugitzen hasi zen arte.

Luzia Lekunberriko hotelean izan da lanean, Erreteriariko Retegi tabernan, Donostiako Pablo txiki tabernan, eta neskame ibili da Eibarren. Han ezagutu zuen azkoitiar batekin ezkondu eta Elgoibarrera joan ziren bizitzera, senarrak zuen bodega tipi batera. Baina uholde batek bodega tikitu eta Plaentziara joan ziren bizitzera. Senarra gaixotu zenean Iruñera etorri ziren, «hemengo klima hangoa baino hobea baitzen».

Talogilea, Gurutze Gorriko boluntarioa, sukaldari trebea eta bertsolaria da Luzia. Jendaurrean bertsoak botatzeko gai ez dela dio, bereak bertso inprobisatuak ez direlako. Inguruko gauzei buruz idazten du eta noizean behin argitaratzen dizkiote, baina akatsekin askotan. Nafarroan tirada handiena duen egunkarian egin zioten elkarriketa batean zenbait gauza gaizki jarri zituzten eta horrek asko haserretu du Luzia. Kontu handiz ibiltzeko eta gauzak ongi apuntatzeko gomendatu dio NAFARKARIARI.

ten nuen lehen egiten zen moduan, eta orain egiten dute butanoarekin. Eta hori ez da taloa egitea, dirua ateratzeko asmoa baizik. Eskulangintza ferietan, saltzera joaten da jendea. Niretzako



● MIKEL UHARTE

eskulana da gauza bat jendearen aurrean egin behar dena, jendeak galdetzeko nola egiten den, zein kostunbretan. Niri poz handia ematen zidaten umeek. Gauza izugarriak galdetzen dituzte umeek, gustatzen zaie jakitea. Eta orain dena itzaltzen ari da, eta pena handia ematen dit, eta horrexegatik erretiratu naiz. Beste urte pare bat ere ibiliko nintzen bestela. Akaso erakustaldiren bat egiteko agertuko naiz, baina gehiago ez.

■ Nola egiten da taloa?

Nafarroan bi edo hiru aldetara egiten zen taloa. Zubieta aldean zura ikatzaren brasekin egiten dute. Basaburua aldean, berriz, pagoa eta lizarraren garrekin egiten genuen, hauen kea garbi-garbia delako eta taloa zikintzen ez duelako. Haritzak duen kea beltza da eta taloa belztu eta gustu txarra ematen dio.

Beste era bat ere genuen Basaburuan. Suaren gaineko txapan, hautsa kendu eta gero, lau bat zentrimetroko taloa jartzen zen. Gainetik jartzen zitzaizkion brasa batzuk piztuak, eta azala pixka bat egiten zitzaizkion, hauspoarekin brasak eta hautsa kentzen zitzaizkion. Gero berriro tapatzen zen hauts bero-beroarekin eta hiru ordu laurden uzten zen. Ondoren, hautsa kendu eta uzten zen hurrengo egunerako. Goizean xerra fin-finak egin eta eltze batean sartzen ziren esnearekin. Gatz pixka bat botatzen zitzaion, eta hori zen gure otamena.

■ Taloa nola egiten den jakiteaz aparte, beste gauza asko badakizu, ezta?

Bai, beste gauza asko ere badaikit nik gazteek ez dakitena. Lisua (lixiba) nola egiten den adibidez. Orain dela hilabete bat Emausera joan nintzen eta han aurkitu nuen lisua egiteko erabiltzen genuen konporta (zinkeko ontzi handia) haietako bat. Bi mila pezeta eskatu zidaten. Ez zekiten zertarako zen.

Konporta harri baten gainean jartzen zen. Bere barruan makiltxo batzuk jartzen genituen, lizarra edo pagoarenak, arropak ez tintatzeko. Gainean jartzen ziren gizonen alkandorak, prakak eta horiek denak. Eskuz garbitu behar ziren aurretik eta bere xaboiarekin konportan sartu. Izarak, toailak eta arropa zuriak jartzen ziren ondoren, eta horren guztiaren gainean lihozko oihala, eta gainean berriz hautsa (errautsa). Pertz batean ura berotzen jartzen zen eta pixkanaka hautsaren gainean botatzen zen. Hautsak, urak eta xaboiak lisua egiten zuten. Ura konportaren azpialdean zegoen zulo-txo batetik ateratzen zen. Hautsa eta oihala kendu eta arropa erretan klaratzen zen. Lisua gordetzen genuen ontziak eta zoluak garbitzeko. Oso ona zen. Usaintxo ona uzten zion arropari eta garbi-garbi utzi, zuri-zuri. Hau guztia jendearen aurrean esplikatzeko gustatuko litzaidake. Lehengo egunean, periodikuan leitu nuen Betelun lisua egin zutela, eta farregurea eman zidan emakume batek eramaten zuelako barruan plastikozko tramankulu bat. Orduan ez genuen holakorik!

■ Zertan ematen duzu denbora?

Senarra hil zitzaidanean pasan nituen bi urte oso motelduta, oso triste nengoen. Orduan hasi nintzen bertsoak eta taloak egiten. Horrelaxe bete nuen bizia eta holaxe bizi izandu naiz. Hauxe da nire bizimodua. Beste egun batez, hemendik denbora batera, etor zaitez eta kontatuko dizkizut beste gauza batzuk.

■ Orain ere konta ditzakezu.

Gazte nintzelarik (dio ia jarraian)... Makiak entzunda zara zu?... Nafarroan asko ibili ziren mendietan. Egun batez, nire aita gaztainak sueltzen ari zen mendian (gaztainak zuhaitzetik hartzen), eta bere gosaria eramaten ari nintzela, hiru gizon atera zitzaizkidan. Beldurtu egin nintzen, gauza izugarriak esaten zituztelako haietaz: jendea hiltzen zutela, emakumeren bat aurkituz gero edozer gauza egiten ziotela eta abar. Oso jatorrak ziren, ordea. Gipuzkoara pasatu nahi zuten eta bidea erakutsi behar nien. Halaxe egin nuen. Eman nien ere aitaren gosaria hiruei. Majo gosaldutuzten eta kasi negarrez. Gartzarongo etxola batean bi egunez egon ziren. Eta nik ez dakit nondik baina guardia zibilak enteratu egin ziren. Harrapatu eta gure etxera eramaten zituzten, han Iruñerako autobusaren txartelak hartzen zirelako. Hura kasualidadea. Kafe bana zerbitu behar izan nien. Ezin genuen ezer esan, ni negarrez nengoen eta besteak ere bai. Handik lau edo bost egunera jakin genuen hil zituztela.

→ Asier Azpilikueta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Fermin Erbiti

Gidoi berria

ETarekin zer ikusia duen albisteak gaueko telebisten programazioa hankaz gora jartzea oso seinale txarra izaten da. Lehenengo egunean, ordea, programazio aldaketaren arrazoiak azken urteetan jaso dugun albiste hoberena ematea zen. Horrelako albiste bat egia bihur dadin egin beharreko lan ixilean ari zirenak alde batera utzita, gainerako guztiok us-tekabean harrapatu gaitu, baikorrenak ere nekez egin zeza-keelako gertaturikoen prebisioa.

Gehienon sorpresarako, ordea, egoera aldatu da. Hainbertze aldez ETari hiltzeari uzteko eskatu dioten batzuk joko zelai berrian urduri eta deseroso ikusiagatik, denboraren poderioz ohituko direla pentsatu nahi dut. Espero dezagun, halaber, ETarena benetako pake nahia izatea. Eta, hala ez balitz ere, ez galdu esperantza, biolentzia bidetik hasiz gero ondorengo kontrolatzea ezinezkoa den bezala, pake bidean hasitakoan ere inork ezin baitu ziurtatu aurretik idatzirik eraman zitekeen gidioa beteko denik.

Azken egunetako inkestek argi diote espainiarrak eszeptikoagoak diren bitartean, euskal herri-tarrok baikor garaile prozesu honetatik pakea etor daitekeela-koan. Agian, tren pasatzen uztea barkaezina litzatekeela inork baino argiago ikusten dugulako. Mahaian eseri behar duten guztiak kontuan hartuko ahal dute! Eta gehiegi eskatzea ez bada, bai batzuei zein bertzei azken eskaera: hemendik aitzina, faborez, gidoilari lana gu guztion esku utzi. Orain arteko gidoi tra-giko bezain aspergarria hobetuko dugulakoan nago.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Lizarra:** Gaur, 20etan, Gustavo de Maeztu museoan, Paco Diezek abesti sefardien emanaldia eskeiniko du.
- **Barañain:** Ostegunean, Folk Ametsak zikloaren barnean, Jose Antoni Ramos musikari kanariarrak kontzertua emanen du udaletxeko erabilera anitzeko aretoan, 20etan.
- **Burlata:** Asteburuan jazz musika entzuteko parada izanen dute udal parkera 20ak alde-rra hurbiltzen direnek. Gaur Paseando con Mr. Dixi Jazz Band taldeak joko du, eta bihar Berriozarko musika eskolako Big Band taldeak.

BERTSOLARIAK

- **Altsasu:** Etzi, Egin eguna dela-eta, Irazu, Manolo Arozena, Jokin Sorozabal eta Jon Sarasua bertsolariak izanen dira 13.00etan.
- **Urrotz:** Astelehenean, Jesus Mari Irazu eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak ari-tuko dira egun osoz.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Mikel Saizen argazki lanak, Ana Casasen margoak eta Eduardo Bren eskulturak ikus daitezke Gotorlekuko Arma Aretoan hilaren bukaer-arte.

IKASTAROAK

- **Iruñea:** Txantreako Auzotegi kultur etxeak honako ikastaroak antolatu ditu larrazke-nerako: eskulanak, lore ihar-tuak, etxeko konponketa lan-ak, latindar dantzak, mar-razketa eta margoketa, zera-mika eta sukaldaritza. Izena emateko azken eguna iraila-ren 30ean bukatzen da. In-formazio gehiagorako deitu 948-132211 telefonora.

- **Iruñea:** Iruñeko Gazteriaren Etxeak honako ikastaro eta mintegiak antolatu ditu: Dantza ikastaro elebiduna (irakasleak euskaraz daki); Ametsak eta bere interpreta-zioa ikastaroa gaztele-raz eta euskaraz; ingurugi-ro mintegi elebiduna; eta Mendi kirola: jakin behar-ko mintegi elebiduna. Izen ematea urriaren 2an buka-

tzen da. Ikastaroen prezio 3.500 pezetakoa da eta min-tegi-ena, 1.000 pezetakoa.

BESTELAKOAK

- **Larrainzar:** Nafarkarian pasa den astean irakur zitekeenez, Ultzamaldeko Esan-Erran Irratian aritzeko bi langileren bila dabilta Ametza kultur elkarteak. Euskaldun osoa, dinamikoa eta bertakoa izatea baloratuko da. Hauta-

gaiek 948-305134 telefonora dei dezakezue izena emateko urriaren 1a baino lehen.

- **Belre:** Narrentrepe antzerki taldeak hiru egunetako ego-naldia antolatu du pailazo izateko teknikak ikasteko. 16.000 pezetagatik urriaren 2tik 4ra mantenu osoan ego-teko aukera dute Pablo Zubika-rai zuzendaritza pean paila-zo izan nahi dutenek. Izena emateko deitu 948-241461 telefonora.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

*Hildakoei hots egin, eta erantzun: kra!
Bizirik daudenei hots egin, eta erantzunik ez: ...
Zer da?*



Eskolako...

Hostoak

...osagaiak.